

EKONOMI ERREGIMENA ETA ADMINISTRAZIO ARAUAK (2025/26 ikasturtea)

1. PLAZA ESKAERA

Ikasleen onarpenarako eskaerak telematikoki egingo dira Ikastetxe Nagusiko web orrialdean:

<http://www.ehu.eus/unamuno>

Eskaerak **berritzeko** epea **maiatzaren 1etik maiatzaren 30era** bitartean izango da. **Eskaera berrietarako** epea **maiatzaren 1etik ekainaren 30era** bitartean izango da. Zenbat plaza libre egon, hainbeste eskaera berri onartuko dira.

2. IKASLEAK ONARTZEKO

2.1. Ikastetxe nagusi honetan plaza bat eskuratu eta baliatzeko, zer ikasle mota den alde batera utzita, baita bekadunen kasuan ere, ezinbestekoa izango da behin behineko onartuen zerrenda agertzen diren ikasleek 5 egun naturalen barruan ikastetxera bere plaza konfirmatzeko deitzea. Ikaslearen onarpena ez da behin betikotzat joko harik eta **924 €** transferitu arte. Diru hori (**924 €**) azken hilekotik (maiatza) kenduko da.

2.2. Aipatutako dirua (**924 €**) ikaslea onartuen zerendan adierazten den eguna baino lehenago ordainduko da. Horretarako, banku bidezko transferentzia egin beharko da Miguel de Unamuno ikastetxe nagusiak Kutxabank-era (BBK) duen kontu korrontera: **BASKES2BXXX-ES68-2095-0292-9632-3900-2322**. Posta elektronikoz (unamuno-e.zuzendaria@ehu.eus) bidali beharko da transferentzia egin izanaren bikoiztua ikaslearen izenean eta ez ordainketa egin duenaren pertsonaren edo enpresaren izenean. Adierazitako egunean ordaindu ezean, emandako plazari uko egiten zaiola esan nahiko du inplizituki. Ikastetxe nagusiak diru sarrera egin dela baieztatu ondoren, zuzendaritzak plaza behin betiko eman duela ulertuko da.

3. IKASTETXE NAGUSIAREN IREKITZEA

Ikastetxe Nagusiko kurtsoa **irailaren 1etik maiatzaren 31era** doa, biak barne, Gabonetako eta Aste Santuko oporretan izan ezik, betiere UPV/EHUko egutegi ofizialarekin bat eginda. Gabonetako eta Aste Santuko oporren ondoren, ikastetxe nagusia lehenengo eskola egunaren bezperako arratsaldean irekiko da.

4. OSTATU JASOTZAILEA

4.1. Ikastetxe nagusia itxita egongo da Gabonetako eta Aste Santuko opor ofizialetan. Ikastetxe nagusiko zuzendaritzak logelak erabili ahalko ditu aldi horietan.

4.2. Ostatuarengatik zenbatekoa (**8316 €**) ikasturte oso bat kontuan hartuta finkatuko da, hau da, **irailaren 1etik maiatzaren 31era bitartekoa** (oporrek izan ezik, UPV/EHUko egutegiaren arabera) eta zerbitzu hauek eskainiko ditu: ostatua, otorduak eta programatutako jarduerak. Aipatutako denboratik kanpoko egonaldiak aparte fakturatuko dira. Ordaintzeko modalitate gisa hilekoen ordainketa aurreratuak erabiliko dira.

4.3. Irailetik apirilera hileko 15. egunean kuota (**924 €**) kobratuko da. Kurtso guztia Ikastetxe Nagusian egiten duten ikasleei maiatzeko kuota plaza onartzerakoan egindako ingresuarekin kitatzen da. Hileko kuotak ikasleek emandako kontura helbideratuko dira.

4.4. Ikastetxeko notarik onenak dituzten **22 Ikasle Nagusiei** (bi urte baino gehiago egin dutenei) azkeneko bi hilabeteen (**1.848**) deskontua egingo zaie.

4.5. Ostatuarengatik zenbatekoa handitu edo gutxitu ahalko da urtea aurrera joan ahala. Kasu horretan, sortzen diren aparteko gastuei aurre egiteko behar adinako diru zenbatekora mugatuko da ostatuaren diru gehikuntza.

Atzeratutako ordainagiriak ikaslearen kargura izango dira.

5. BAJAK

5.1. Ikasleari baja emango zaio ikastetxe nagusian justifikaziorik gabe ordaintzen ez duenean, lehenago aipatutako baldintzen arabera.

5.2. Era berean, ikasleari baja emango zaio ikastetxe nagusian falta larriak egiten direnean, betiere estatutu, barne erregimen eta ekonomi erregimeneko arauen arabera.

5.3. Baja diziplinarioa faltatzat joko da, horren arrazoia edozein dela ere, eta ez zaio dirurik itzuliko pasatu ez dituen aldiengatik.

5.4. Baja boluntarioa administrariari eskatu beharko zaio, gutxien dela, 15 egun lehenago. Lau hilabete baino gutxiagoko egonaldietarako, ordaindu beharrekoa gela okupatuta egon den egunen arabera izango da.

6. KALTEAK

6.1. Ikasle bakoitzak arreta handiz zaindu beharko du bere gela. Debekatuta dago kartelak jartzea, baita hormak, sabaia, ateak eta armairuak hondatu ahal dituzten beste objektu batzuk jartzea ere. Ematen zaizkion altzariak zaindu beharko ditu, eta ikasturte bukaeran kontserbazio egoera onean entregatu. Egotzi ahal zaizkion kalteen arduradun izango da. Debekatuta dago altzariak tokiz, gelez eta esparru komunez aldatzea.

6.2. Ikasle bakoitzak ikastetxe nagusiko instalazio orokorren kontserbazioaz arduratu beharko du. Behar bezala ez erabiltzeagatik sortzen diren kalteak berehalaxe konpondu beharko dira kalte eragilearen kontura, edo horrek ez entzunarena eginez gero, ikasle guztien artean ordaindu beharko da.

6.3. Ikastetxe nagusira sartzean egiaztatu beharko dute nola dauden haien eskura jarritako altzariak—erabiltzeko moduan jasoko dituztenak— eta aurkitzen dituzten akatsen berri eman beharko dute, haiek erantzun beharko baitute hiruhileko bakoitzaren bukaeran, baldin eta egiten diren aldizkako berrikuspenetan aurkitu ez badira.

7. BESTE ARAU BATZUK

7.1. Ikastetxe nagusia ez da ikasleen arroparen erantzule.

7.2. Ikastetxe nagusiak eskaintzen dituen ohe jokoak eta toallak izango dituzte ikasleek.